

FUNTSEZKO JARDUERAK

Animalien analisia eta sailkapena

Aurreko zenbait ataletan aipatu dugun bezala, gure maskoten osasun mentalaren behaketa bat jarraituko dugu. Hori dela eta, zer alderditan zentratuko garen eta zer baliabide beharko ditugun zehaztu behar dugu.

- **Jarduera**

Eskaintzen dugun etxeko laguntza-zerbitzuaren helburua bakardadean bizi diren adinekoei animalia-konpainia ematea dela kontuan hartuta, beharrezkoa iruditzen zaigu gure maskotak haien ezaugarrien arabera sailkatzea, gure enpresak zentzua izan dezan eta gure helburuak betetzea lor dezagun. Jakina, abandonuak edo tratu txarrak eragindako traumak mantentzen dituen animaliarik ez da erabiliko gure zerbitzuetarako. Ildo beretik, sozializatzeko eta konpainia emateko prest daudenen artean, komenigarritzat jotzen dugu bereizketa bat egitea.

Alabaina, gure enpresaren animaliek bi funtzio nagusi izango dituztela: alde batetik, kafetegian egongo den maskota-taldea, eta, bestetik, etxez etxeko banakako konpainia emateko hautatutako maskota-sorta bat egongo da. Bistan dagoenez, ezaugarri desberdinak eskatzen dituzten bi funtzio erabat desberdinak dira. Horregatik, beharrezkoa ikusten dugu gure maskoten arteko sailkapen hori egitea, maskota bakoitza onura gehien ekarriko dien ekintzara egokitu ahal izateko, eta modu berean, onura gehiago ekar dezaten haien ezaugarrietara egokitutako ekintza egiten ari delako. Sailkapen horretarako, funtzio bakoitzerako bi maskota profil planteatzea komeni dela ikusi dugu. Horrela, maskotak antz handiena duten profilaren arabera taldekatzeko.

Kafetegian dauden maskoten profilak animalia soziala izan behar du, zaratak, hurrek edo jende-masa handiak deserosotasuna eragiten ez dietenak, egunean zehar askoz ere pertsona gehiagorekin egongo baitira harremanetan. Barnerakoi animalia bat kafetegian sartzea gure helburua oztokatzen eta zailtzen duen akatsa izango litzateke, animalia horren erosotasunari eta ongizateari kalte egingo litzatekeelako, eta animalien ongizatea ere gure helburuetako bat da. Horregatik, akats hori saihesteko, kafetegian geratzen diren animaliak sozialenak, kanporakoenak eta lagunkoienak izango dira. Horrela, lokalak giro atsegina eta deigarria izatea lortuko dugu, non mundu guztia gustura dagoen, animaliak berak barne.

Bakarrik bizi diren adinekoei lagunartea eskainiko dieten maskoten profilari dagokionez, animalia lasaiagoak eta pazienteak izan behar dute, tratu delikatuagoa eta pertsonalagoa izango baita. Horregatik, maskota manakor eta lasaiak eramango ditugu, zalaparta handirik sortzen ez dutenak, adineko bakartiaren erosotasuna ere bermatzeko.

Langileen analisia eta bere sailkapena

Animaliak zatitzen ditugun bezala, komenigarria iruditzen zaigu laneko plantillarekin egitea. Hori dela eta, zer alderditan zentratuko garen eta zer baliabide beharko ditugun zehaztu behar dugu.

- **Jarduera**

Behin azalduta animaliekin egingo duguna, berdin berdina egingo dugu gure langileekin. Hasteko, egingo dugun sailkapena aztertuko dugu. Horretarako, beharrezkoa da bi motatako langileak bereiztea.

Lehengo motatako langileak, sektore publikoan lan egingo dutenak izango dira. Hau da, adingo jendearekin lan egin behar izango dute eta haien etxetara joan behar izango dira. Horregatik, behar izango da pertsona alaitsuak, sozialak eta lasaiak eta pazienteak, adineko jendearekin hitz egitean sor dakizkiekeen gatazkei aurre egiten dakitenak. Izan ere, oso garrantzitsua izango da langileek konfiantza transmititzeko gai izatea, adinekoak seguru senti daitezen. Gainera, argi eta erraz entzuten eta komunikatzen jakin behar dute, eta, horrela, askoz lasaiago geratuko dira adineko pertsonak eta gure enpresan konfiantza handia izango dute.

Bigarren motatako langileak, sektore pribatuan egingo dute lan, hau da gure kafetegian. Haien funtzioa argi zehaztuta egongo da. Alde batetik, langile bizkorrak izan behar dira, sor dakiekeen edozein arazo konpontzeko gai direnak. Horretarako, garrantzitsua da lasai egoten jakitea eta errespetuz eta adeitasunez hitz egitea beti, bezeroa ondo tratatuz. Gainera, taldean lan egiten jakin behar dute, eta elkar hartzeko eta besteei entzuteko gaitasuna izan behar dute. Bestalde, ikasketa batzuk izan behar dituzte. Horretaz gain, gutxienez bi hizkuntza argi hitz egiten jakin beharko dute, eta horietako bat ingelesa izango da. Garrantzitsua da hainbat nazionalitatetako mota guztietako bezeroekin komunikatzen jakitea, ingurune hurbilago bat sortzeko eta gure bezeroak erosoago sentitzeko.

Hala ere, bigarren mailako langileak egongo dira. Langile horiek arduratuko dira animaliak zaintzeaz eta tratatzeaz, eta haien osasun mentalaz arduratuko dira. Horretarako, animaliekin lotutako ikasketa minimo batzuk dituzten pertsonak beharko ditugu, beren lana eta animaliekin denbora pasatzea gustuko dutena.

Hala eta guztiz ere, aipatzekoa da gure langileak motibatuta egongo direla eta beren lanarekin konprometitutako pertsonak izango direla. Motibazio hori lortzeko, hainbat sari jasoko dituzte, hala nola lan-kontratuko diru-plusa.